

LUBIANO

– ARABA / ÁLAVA –

Gasteiztik 10 kilometrora dago Lubiñao, eta bertako udalerriko parte dugu. Izan ere, hiriburu erditik hara joateko, N-104 errepidea hartu behar da Donostiarantz. Ilarratzara heltzean, ezkerretara hartu behar dugu bide bat, eta, handik, besteak beste, Lubiñaoa iritsiko gara, A-3010 errepidean zehar. Jungitu atzean utzita, herrixkara helduko gara.

Donemiliagako Reja izeneko agirian *Luviano* izenez dator aipatuta, eta bi golde-burdina ordaintzen omen zizkion Harhazuako barrutiari. Jeronimo Aznar gotzainak, berriz, *Luuiano* izenez dakar jasota, eta Artxidiakonoaren barrutiaren Bazarrean, 1295ean, lau onuradun omen zeuden herrien izenean.

Lubiano se sitúa a 10 km de Vitoria, a cuyo ayuntamiento pertenece, y desde ella se accede por la N-104 en dirección a San Sebastián. Al llegar a Ilárza, un desvío a la izquierda marca la salida hacia varios pueblos, entre ellos Lubiano, por la A-3010. Dejando atrás Junguitu, se llega al centro de la población.

En el documento de la Reja se le denomina *Luviano*, y paga dos rejas dentro del primer Alfoz de Harhazua. El obispo Jerónimo Aznar lo llama *Luuiano*, y a la Reunión del Arcedianato de 1295 asisten cuatro beneficiados del lugar de ese mismo nombre.

Natibitate eliza / Iglesia de la Natividad

ERAIKIN ERROMANIKOA da, inertziatzko erromaniko garaikoa; nabe bakarrekoa, lau atal eta burualde artezekoa. Molduradun arku gurutzatuen ganga batek estaltzen du, eta beraien giltzarri, *Agnus Dei* delakoa dago. Garaipen-arku zorrotza du horrek, harroinen gainera datorrena, eta gainerako atalak gurutze-ganga sinpleek estaltzen dituzte, arku mailakatuekin. Giltzarrietako baten Errege-erregina Katolikoaren armaria dago; beraz, xv. mendean amaierakoa omen da. Eraikinaren gainerako atalak geroragokoak dira.

Kanpoaldean, elizpeak ataria dauka babespean. Ataria ere erromanikoa da, bi arkibolta oso zorrotz ditu, molduradun ertza eta deskarga-arkua. Deskarga-arkuaren apaingarriak, hauek dira: hosto haragitsuak, punta irauli eta zurtoin nabarmenekin; baita landare artean azaltzen den maskaroi bat arkuaren gailurrean. Inposta laua da, eta euskarri gisa, angeluetan zutabeerdiak dituzten pilareak. Kapitela landare irudiz daude apainduta, zabar antzean; izan ere, fusteen eta kapitelen egikerak agerian uzten dute zein alditako eraikina den, Erdi Aro berantiarreko atrofia nabarmentzen baitzaie. Eraikinaren buruan, berriz, ur biko teilatuaren aztarnak ikusten dira, baita gezi-leiho bat eta leiho bat ere. Leiho gotikoa da, arkiboltekin ertzean.

Tenpluaren iparrean bada oraindik erdi-puntuko arku eta deskarga-arku molduradun baten goiko aldea; itsua da. Barrutik, bataiarria dagoen lekuan dago.

SE TRATA DE UN EDIFICIO ROMÁNICO, ya de inercia, formado por una nave única, cuatro tramos y cabecera recta. Ésta se cubre con bóveda de arcos cruzados moldurados, en cuya clave se ostenta el *Agnus Dei*, y presenta arco triunfal apuntado, apoyado sobre pilastras, mientras que el resto de los tramos presentan bóvedas de crucería simple con los arcos escalonados. En una de las claves se ve el escudo de los Reyes Católicos, lo que la situaría a fines del siglo xv. El resto de dependencias son posteriores.

Al exterior, el pórtico acoge la portada, también románica, con dos arquivoltas muy apuntadas de arista moldurada y sobrearco decorado con pequeños motivos de hojas carnosas vueltas y marcados tallos, además de un mascarón culminando el arco asomando entre los vegetales. La imposta es lisa, y los apeos son pilastras con semicolumnas en los ángulos, cuyos capiteles están levemente decorados con vegetales. Los fustes y capiteles muestran la atrofia propia del momento, ya tardío. En la cabecera se aprecian restos del tejado a dos aguas, así como una saetera y una buena ventana, ya gótica, con arquivoltas en arista.

En el lado norte del templo se conserva la parte superior de un arco de medio punto y sobrearco moldurado, cegado, que se corresponde al interior con el hueco donde se cobija la pila bautismal.



Kanpoaldea

Exterior

Ekialdeko altxaera / Alzado este





Portada

Portada



Burualdeko leiboa

Ventana de la cabecera

Eraikinaren kanpoaldean, hegoaldean, elizpearen ondoan, bizilagunek gauzak gordetako darabilten sakristia den tokian, beste leiho gotiko bat ageri da, itxita. Hiru arkibolta zorrotz eta molduradun ditu, eta landare-irudiz apaindutako deskarga-arku bat.

Testua eta argazkiak: REA - Planoak: LGS

Al exterior, en el lado sur junto al pórtico, sobre el espacio de la sacristía que actualmente es utilizado por los vecinos para guardar enseres, hay una segunda ventana gótica tapiada con tres arquivoltas apuntadas y molduradas y sobreacto con motivos vegetales.

Texto y fotos: REA - Planos: LGS

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 123; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 110-111; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, p. 874; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 491-492, fig. 709-711.